

## BESTELAKO XEDAPENAK

### EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

## 2094

*EBAZPENA, 2015eko apirilaren 29koa, Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordearena, 2014ko ekitaldian emandako diru-laguntzen onuradunen zerrenda argitaratzeko dena. Laguntza haiek Euskal Autonomia Erkidegoko esnetarako behien abeltzaintza-ustiategietan abereen ongizatea hobetzeko laguntzei buruzko maiatzaren 29ko 100/2012 Dekretuaren babespean eman dira.*

Euskal Autonomia Erkidegoko esnetarako behien abeltzaintza-ustiategietan abereen ongizatea hobetzeko laguntzei buruzko maiatzaren 29ko 100/2012 Dekretuaren 7.7 artikulua dioenez, laguntzei buruzko ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie interesdunei, eta, horretaz gainera, publikitatea egiteko, Nekazaritza eta Landa Garapeneko sailburuaren ebazpen baten bidez, dekretu honetako laguntzen onuradun gertatu diren pertsonen zerrenda eta laguntzen zenbatekoa abeltzaintza arloko organo eskudunaren egoitza elektronikoan argitaratuko dira.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2014ko uztailaren 30eko Agindua bidez, 2014ko ekitaldirako, esnetarako behien abeltzaintza-ustiategietan abereen ongizatea hobetzeko laguntzak emateko deialdia egin zen. Laguntzak esleitu eta ebazpenak onuradunei jakinarazi ondoren, eta hala xedatzen duenez azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49. artikulua 2. idatzi-zatiko bigarren paragrafoak (dekretu horren bidez, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onetsi zen) eta urtarrilaren 26ko 30/2010 Dekretuaren 25.4 artikulua, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Argitara ematea Euskal Autonomia Erkidegoko esnetarako behien abeltzaintza-ustiategietan abereen ongizatea hobetzeko laguntzei buruzko maiatzaren 29ko 100/2012 Dekretuaren babespean 2014ko ekitaldian emandako diru-laguntzak jaso zituztenen zerrenda. Abeltzaintzaren eskumena duen organoaren egoitza elektronikoan emango da argitara, interneteko helbide honetan: [www.nasdap.ejgv.euskadi.net](http://www.nasdap.ejgv.euskadi.net)

Vitoria-Gasteiz, 2015eko apirilaren 29a.

Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordea,  
BITTOR OROZ IZAGIRRE.